

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	2022IPLE0006
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

2022-10-18ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2022ko urriaren 18an, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitx Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:


- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2023KO ORDENANTZA FISKALAREN HASIERAKO ONARPENA ETA EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA
4. ALBIZTURKO HAPO-REN XEDAPEN ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA
5. LANDALURRAK TOPOGRAFIKOKI MUGATZEKO BILERAREN BALORAZIOA
6. LANDA BIDEEN DIRULAGUNTZA
7. ELIZA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN OBREN AMAIERA
8. KOTXEAK ONDO APARKATZEKO ETA EGUR PILAK KENTZEKO BANDOAK
9. ALBIZTURKO UDALEKO LAND ROVER-AREN INGURUKO ERABAKIA
10. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2022-07-27ko akta aho batez onartu da.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2022ko 59 eta 82 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2023KO ORDENANTZA FISKALAREN HASIERAKO ONARPENA ETA EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA

Momentu honetan urte arteko Kontsumorako Prezioen Indizea %8,5ekoa da, baina herritarren egoera ekonomikoa zaila denez, eta 2022. urtean %4ko igo zirenez, 2023ko Ordenantza Fiskalak orokorrean bere horretan mantentzea adostu da. Hala ere, Albizturko Udalak zuzenean ematen ez duen zerbitzuren batek igoera jasango balu (zabor bilketa, kirol ekintzak, ...), kasuz kasu aztertu beharko da Albizturko Udalak ere igoeraren bat aplikatuko dion ala ez.

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2023ko Ordenantza Fiskalak orokorrean bere horretan mantentzea eta igoerarik ez aplikatzea.

Bigarrena.- 2023ko Ordenantza Fiskalen hasierako onarpena eta Egutegi Fiskala GAOran bidaltzea.

4. ALBIZTURKO HAPO-REN XEDAPEN ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa adostu du:

Lehena.- Albizturko HAPO-ren lehen aldaketa puntualaren behin behineko onarpena.


Bigarrena.- Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera (EAELAB-COTPV) bidaltzea.

5. LANDALURRAK TOPOGRAFIKOKI MUGATZEKO BILERAREN BALORAZIOA

Urriak 10ean, astelehenean, goizeko 11etan eta ilunabarreko 19tan egin ziren bilerak Albizturko 2. poligonoko lurjabeekin.

Geograma-k liburuxkak banatu zizkien bertaratu zirenei, Katastroko datuen arabera bakoitzaren lursaila zein den azalduz.

Azaroaren 25 arteko epea dute lurjabeek liburuxka horiek beteta Albizturko Udalean aurkezteko.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

6. LANDA BIDEEN DIRULAGUNTZA

Albizturko Udalak 35.000 €ko dirulaguntza lortu zuen Aizkorri Handiko bidea konpontzeko 2022ko landa bideen dirulaguntzan.

Baina ekonomia arloan dagoen ziurgabetasunaren ondorioz (prezioen hazkunde handia), izugarriko arazoak izan ditugu aurrekontuak lortu eta obra martxan jartzeko.

Gainera kontuan izan behar da obra konplexu xamarra dela, eta 3 aurrekontu desberdin behar direla: biondak jartzeko aurrekontua, kunetak hormigonatzeko aurrekontua eta errepidea konpontzeko aurrekontua.

Urriak 31 arteko epea zegoen dirulaguntza zuritzeko, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak abenduak 1 arte luzatu digu epea.

Bestalde, biondak jartzeko aurrekontua oso altua dela ikusirik, oraingoz biondarik ez jartzea adostu da.

7. ELIZA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN OBREN AMAIERA

Eliza inguruko urbanizazio proiektuaren obrak amaitzen ari dira, eta azken ikutuak egitea bakarrik falta da.

Loreontziak eskatu dira eta Ugartemendiatarren etxe aurreko itxitura noren kargu den argitu behar da.

8. KOTXEAK ONDO APARKATZEKO ETA EGUR PILAK KENTZEKO BANDOA

Kotxeak ondo aparkatzeko eta egur pilak kentzeko bandoan aipaturiko 2 hilabeteko eta hilabete 1eko epea abuztuaren 10ean eta uztailaren 10ean bete ziren hurrenez hurren.


Oraindik herritar batzuk egur pila ez dutenez kendu, deitu egingo zaie eta kasurik egin ezean zehapen espedienteekin hasiko garela ohartaraziko zaie.

Bestalde, zenbait herritarrek kotxeak bahar ez den lekuan aparkatzen jarraitzen dutenez, Osoko bilkurak aho batez honakoa adostu du:

Lehena.- Albizturko trafiko eskuduntza Ertzantzaren eskuetan uztea.

Bigarrena.- Horretarako beharrezko pausoak ematen hastea.

9. ALBIZTURKO UDALEKO LAND ROVER-AREN INGURUKO ERABAKIA



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Albizturko Land Rover-ak ez du ITV-a pasa, eta aztertu duen tailerraren arabera, balio duena baino konponketa garestiagoak egin behar zaizkio ITV-a pasa ahal izateko.

Beste tailer batera eramango dugu bigarren iritzi bat izateko, eta egoera mantentzen bada datorren urteko aurrekontuetan partida bat aurrikusi beharko da Land Rover berria erosteko.

10. GALDERA ERREGUAK

- **Jose Inazioaren despedida afaria:** Azaroak 11n izango da Albizturko Ostatuan, eta Albizturko Udaleko langileak, gaur egungo hautetsiak eta aurreko legegintzalditako Alkateak gonbidatuko dira.
- **Martinaren jai egunak:** Babarrunak biltzeko jai egun solteak eskatu ditu Martinak. Oraindik ere Covid-aren murrizketa batzuk jarraitzen dutenez, egun erdiz garbiketa lanak egingo ditu eta egun erdi hartuko du jai.
- **Etarte eta Aitzaldeko lurjabeekin bilera:** Urte asko igaro dira Albizturko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu zenetik, eta bertan aurrikusitako Etarte eta Aitzaldeko eremuetan etxe berriak egiteko mugimendurik ez dagoenez, bilera egingo da lurjabeekin gaia aztertu eta Udalaren asmoak azaltzeko.
- **Kaleko argiteria:** Kaleko argiek ez dutenez behar bezala argizatzen, orain autobus geltoki aurreko argiak berrituko dira eta datorren urtean gainontzekoak.

Osoko bilkura, 21:00etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2022ko urriaren 19an